

Kristauaren Dotriñea

Aita Astete-gandik

ATARATA

Paulo Zamarripa ta Uraga, Abadeak

EUSKERATUA

(BEAR DAN BAIMENAGAZ)

Azkenean ezarten dan MEZA ERAZOTEKO MO-
DUA-n erakusten da, mezaerazoleak meza
issil baten esan eta egin bear daben guztia.

BOALDE TA LAGUNEN MOLDATEGIAN

1907-garren urtean

BILBON



*Tara el centro Navarro
Pedro de Echeverria*

Kristauaren Dotrinea

Alta Astete-gandik

ATARATA

*AV
35279*

Paulo Zamarripa ta Uraga, Abadeak

EUSKERATUA

Ezaugarri onegaz * ipinten direan itaune ta erantzunak Menendez de Luarda-k Asteteri ezarririko geigarriak dira).

izkenean ezarten dan MEZA ERAZOTEKO MODUA-n erakusten da, al bait argiroen, meza-erazoleak meza issil edo kantu-bakoetan esan eta egin bear daben guztia,


Ugalde ta lagunen moldategian

1907-garren urtean

H-76837

F-80766





SARRERA



Kristau zintzo guztiak
bear deutse eüki
onerazen andia,
biotz biotzetik,
Jesus gure argiaren
Kurutze Deunari.
Anche il gura ebalako
Berberak gugaitik,
gure pekatu ta etsai
charraren menpetik
betiko gure arimak
ataratecagaitik.
Orregaitik, bada, zu
oitu bear zara
zeñatu ta santiguau
eiten lotza baga,
iru kurutze egiñaz;
Bekokian bata
gogamen deungetatik
gorde gaizan Jaunak;
Bigarrena aoan,
gorde gaizan Berak
berba gaiztoetatik;

Eta irugarrena
egizu bularrean
gorde gaizan baita
egite deungetatik
ta gurari zantar
danetatik.

Olan
biotzez ezanik:

*Kurutze ✠ santearen
señaleagaitik,
gure ✠ arerioetatik
aldendu (1) gagizus,
Geure ✠ Jaun ta Jainkoa.
Aitearen ta ✠ Semearen
ta Espiritu Santuaren
izenean. Amen.*

Aita Gurea

Aita gurea, zeruetan zagozana, donetu edo santificadu bedi zure izena, betor gurgana zure erreñua, egin bedi zure gurazitatea zelan zeruan alan lurrean. Emon egiguzu gaur geure eguneroko ogia, ta parkatu egiguzuz geure zorrak geuk geure zordunai parkatuten deusaguzan legez eta ez egiguzu ichi esetsi edo tentaciñoan iaus-ten eta gorde gaizus gachetik. Amen.

(1) Gorde.

Ave Maria

Agur Maria, graciaz betea, Jauna da zuz-
gaz, bedeinkatea zara zu andra guztien ar-
tean eta bedeinkatua da zure sabeleko
ekoizte edo frutua Jesus. Santa Maria, Jain-
koaren Ama, erregutu egizu gu pekatoriok
gaitik orain ta geure eriotzako orduan.
Amen.

Kredoa

Ziniztuten dot Aita Jainko guztia al dabe-
nagan, zeruaren eta lurraren Egilleagan,
eta aren Seme bakar Jesukristogan; zein
sortu zan Espiritu Santuaren egitez eta
graciyaz. Iaio zan Maria Birjiñeagandik;
igaro edo padecidu eban Poncio Pilatosen
agindupian; izan zan kurutzean iosia illa ta
lurperatua; iatzi zan inpernuetara; eta iru-
garren egunean biztu zan illen artetik. Igo
eban zeruetara ta an dago iarririk Aita
Jaingo guztia al daberen eskumatatik.
Andik etorriko da biziak eta illak juzgeta-
ra. Ziniztuten dot Espiritu Santuagan, Eli-
za Santa Katolikeagan, Santuen Komunioan,
pekaturen parkaziñoan, aragiaren biztuera
ta betiko bizitzean. Amen.

Fedeko zinisgeiak (edo artikuloak)

Dira amalau: lenengo zazpirak dagokaz Jainkotasunari, ta beste zazpirak Jesukristo geure Jaun, Jainko ta gizon egiazkoaren gizontasun santuari.

JAINKOTASUNARI DAGOKAZANAK DIRA ONEK

Lenengoa, ziniztu Jainko guztiz indartsu bategan.

Bigarrena, ziniztu Aita dala.

Irugarrena, ziniztu Semea dala.

Laugarrena, ziniztu Espiritu Santua dala.

Bostgarrena, ziniztu dala gauza guztien Egillea.

Seigarrena, ziniztu dala Salbagillea.

Zazpigarrena, ziniztu dala Glori-emollea edo gloria emoten dabena.

GIZONTASUNARI DAGOKAZANAK DIRA ONEK

Lenengoa, ziniztu Jesucristo gure Jauna, gizona danez, sortu izan zala Espiritu Santuaren egitez eta graciaz.

Bigarrena, ziniztu iaio zala Maria Birjiña Santeagandik berau geratutcn zala Birjiña Semea iaio baño lenago, iaioletzean eta jaio ezkeru.

Irugarrena, ziniztu artu ebala eriotzea ta nekaldi edo pasiñoa gu pekatoriok zeruratutearren.

Laugarrena, ziniztu iatzi zala inpernue-
tara bere etorrera santuaren begira egozan
Guraso santuak ateraten.

Bostgarrena, ziniztu irugarren egunean
biztu zala illen arterik.

Seigarrena, ziniztu igo ebala zeruetara,
ta an dagola iarririk Aita Jainko guztiz
altsuaren eskumatatik.

Zazpigarrena, ziniztu andik etorriko dala
biziak eta illak juzgetara; esan gura dau:
onai gloria emotera bere agindu santuak
gorde zituzalako, eta gaiztoai betiko penea
ez ebezalako gorde.

Salbea

Jaingoikoak gorde zaizala, Erregiña, e-
rrukiz beteriko Ama, bizitza, gozotasun eta
icharopen geurea. Jainkoak gorde zaizala.
Zeuri deiez gagoz Ebaren ume erbeste-
tuok. Zeugana gatoz gu zizpuruz atsekabez
eta negarrez negarrezko erri onetan. Ia,
bada, Andrea, bitarteko geurea, biurtu egi-
zuz guganuntz zeure begi errukitsu orrek.
Eta erbeste au irago eta, erakutsi egiguzu
Jesus, zeure sabeleko frutu bedeinkatua.
¡O biotz biguna! ¡O errukiorra! ¡O Maria
Birjiña gozoa! Erregutu egizu gugaitik,
Jainkoaren Ama Santea, Jesukristoren agin-
tzarien duin izan gaitezcan. Amen Jesus.

Amar aginduak

Jainkoaren legeko aginduak dira amar: lenengo irurak dakogaz Jainkoaren ondrea-ri, ta beste zazpirak lagun urkoaren on edo provechuari.

Lenengoa, Jainkoa maite izatea gauza guztien ganean.

Bigarrena, juramentu bidebagakorik ez egitea.

Irugarrena, iai-egunak ondo gordetea.

Laugarrena, aita ta ama ondretea.

Bostgarrena, iñoz ez iltea.

Seigarrena, aragizko pekaturik ez egitea.

Zazpigarrena, ezer ez ostutea.

Zortzigarrena, iñori guzurrezko testimo-
niorik ez ezartea ta guzurrik ez esatea.

Bederatzigarrena, lagunaren emazterik ez gura izatea.

Amargarrena, besteen ondasunik ez gura izatea.

Amar agindu onek sartuten dira bitan: Jainkoa gauza gustian ganetik maitetutean eta lagun urkoa zeure burua legez maite izatean.

Kristauaren ikasbidearen azalduera

ITAUNEKAZ ETA ERANTZUERAKAZ

ITAUNEA. ¿Kristiñaua zara?

ERANTZUERA. Bai, Jainkoaren doez edo graciaz.

I. ¿Nondik iatortzu kristiñauaren izen ori?

E. Jesukristo geure Jaunagandik.

I. ¿Zer esan gura dau *kristiñau* izenak?

E. Kristoren gizona.

I. ¿Zer ulertu edo aituten dozu *Kristoren gizona* diñozunean?

E. Jesukristoren ziniztea daukana, zein zinizte artu eban bateo santuan, eta Kristori servietako berbatuta dagoana.

I. ¿Zein da kristiñauaren ezaugarri edo señailea?

E. Kurutze santua.

I. ¿Zegaitik?

E. Dalako kurutzean ildako Kristoren irudia, zeñetan erosi genduzan.

I. ¿Zeinbat eratarra egiten dau kristiñauak señaile edo ezaugarri ori?

E. Era edo modu bitara.

I. ¿Zeintzuk dira?

E. Zeñatutea ta santiguatutea.

I. ¿Zer da señatutea?

E. Da eskumako orkoroagaz iru kurutze egitea: lenengoa, bekokian, bigarrena aoan,

irugarrena bularrean, geure Jainkoagaz berba egiten dogula.

I. Erakutsi ¿ia zelan?

E. *Kurutze santuaren ✠ señailegaitik; geure ✠ arerioetatik zaindu gagizuz ✠ geure Faun eta Faungoihoa.*

I. ¿Zegaitik señaletan zara bekokian?

E. Jainkoak gorde gagizan burutasun gaiztoetatik.

I. ¿Zegaitik aotan?

E. Jainkoak gorde gagizan berba gaiztoetatik.

I. ¿Zegaitik bularrean?

E. Jainkoak gorde gagizan egite ta gurari gaiztoetatik.

I. ¿Zer da santiguatutea?

E. Eskumako atz bigaz kurutze bat egitea, bekokitik bularrera, ta eskerreko sorbaldatik eskumakora, Irubatasun edo Trinitate guztiz santuari gagokazala.

I. Erakutsi ¿ia zelan?

E. *Aitearen ta Semcaren ✠ eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.*

I. Noiz egin bear dozu ezaugarri edo señaile ori?

E. Eginkizun edo obra onen bat asten dogun guztian edo bear-izanen baten, esetsi edo arriskuren baten burua ikusten dogunean, batez bere oetik iagi, echetik urten, eleisan sartu, jaten asi ta oean echuten gareanean.

I. ¿Zegaitik orrenbeste bidar?

E. Beti ta leku guztietan geure arerioak zirikatu ta perseguiduten gaituezalako.

I. ¿Zeintzuk dira arerio orrek?

E. Cherren edo demonioa, mundua ta aragia.

I. ¿Beraz kurutzeak badau indarra arerio orren kaltez?

E. Bai, jauna.

I. ¿Nondik dau indar ori kurutzeak?

E. Kristok bere eriotzeaz anche goitu edo ventzidu zituzalako.

I. ¿Kurutzea adoretan dozunean, zer esaten dozu?

E. Kurtu edo adoretan eta bedeinkatuten zaituguz, Kristo; zure kurutzearen birtatez mundua erosi zendulako.

Kristauaren ikasbidearen ataltasun edo divisiñoa

Ikusi dogu kristiñaua zareana, kristiñauaren izenez eta ezaugarritz; baña oraiñ esan egidazu:

I. ¿Zeinbat ganza iakin bear ditu kristiñauak errazoiaren argitara datorrenean?

E. Lau ganza.

I. ¿Zeintzuk dira?

E. Iakitea zer ziniztu, zer eskatu zer egin eta zer artuko daben.

I. ¿Zelan iakingo dau zer ziniztu bear daben?

E. Kredoa ta fedeko zinizgaiak iakiñaz.

I. ¿Zelan iakingo dau zer eskatu bear daben?


E. Aita gurea ta Eleisako beste erre-guak iakiñaz.

I. ¿Zelan iakingo dau zer egin bear da-ben?

E. Iakiñik Jainkoaren legeko amar agin-duak Eleisa Ama Santearenak, ta Obra errukitasunezko edo miserikordiazkoak,

I. ¿Zelan iakingo dau zer artuko daben?

E. Zazpi sacramentuak iakiñaz.



Lenengo atala

ZEÑETAN AZALDUTEN DIREAN KREDOA TA FEDEKO ZINIZGEIAK

I. Gatozan leuengora, ta esaizu: ¿nok esan eban kredoa?

E. Apostoluak.

I. ¿Zetarako?

E. Fedeko gauzak guri irakasteko.

I. Eta ¿zuk zetarako esaten dozu?

E. Kristiñauok daukagun fede au autor-tuteko.

I. ¿Zer da fedea?

E. Ikusi ez-doguna ziniztutea.

I. ¿Ikusi zenduan Jesukristo iaioten?

E. Ez, jauna.

I. ¿Ikusi zenduan ilten edo zerura igoten?

E. Ez, jauna.

I. ¿Eta siniztuten dozu?

E. Bai, jauna.

I. ¿Zegaitik ziniztuten dozu?

E. Gure Jainkoak alanche Eleisa Ama

Santeari agertu deutsalako ta beronek olande geuri irakasten deuskulako.

I. Eta ¿zeintzuk dira kristiñaua legez euki ta ziniztuten dozuzan gauzak?

E. Erromako Eleisa Ama Santeak euki ta ziniztuten dituzanak

I. Eta ¿zeintzuk dira berak eta zeuk ziniztuten dozuezanak?

E. Fedeko zinizgeiak (edo artikuloak) batez bere Kredoan dagozan legez.

I. ¿Zer dira artikulo fedekoak edo zinizgaiak?

E. Dira fedeko eskutapen edo misteriorik arduragarrienak.

I. ¿Zetarako dira fedeko artikuluak?

E. Geure Jainkoaren ta Jesukristo geure Salbagillearen barri edo ezagüera zietzagoa emoteko.

I. ¿Zer da gure Jainkoa?

E. Da esan eta uste izan geinken gauzarik goien ta miragarriena; Jaun bat ezin ohea, altsua, iakituna, zuzena, gauza guztien asiera ta amaia.

I. ¿Zer da Irubatasun edo Trinitade guztiz santua?

E. Da Jainko bera, Aita, Semea ta Espiritu Santua, iru persona banako ta Jainko egiazko bakar bat.

I. ¿Aita Jainkoa da?

E. Bai, jauna.

I. ¿Semea Jainkoa da?

E. Bai, jauna.

I. ¿Espiritu Santua Jainkoa da?

E. Bai, jauna.

I. ¿Eta onek iru Jainko dira?

E. Ez, jauna, ezpada Jainko egiazko bakar bat, eta guztiz Altsu bakar bat, Betiko bakar bat eta Jaun bakar bat.

I. ¿Aita semea bada?

E. Ez, Jauna.

I. ¿Espiritu Santua Aita edo Semea bada?

E. Ez, jauna.

I. ¿Zegaitik?

E. Personak banakoak diralako, Jainko egiazko bakar bakar bat izan arren.

I. * Olan bada, ¿zeinbat izate edo naturaleza, zeinbat adin edo entendimentu eta zeinbat naimen edo borondate dagoz Jainkoagan?

E. * Izate bakar bat, adin bakar bat eta naimen bakar bat.

I. * ¿Eta zeinbat persona?

E. * Iru banakoak, zeintzuk direan Aita, Semea ta Espiritu Santua. *

I. ¿Zelan da Jainkoa Guztiz Altsua?

E. Bere al-izate utsagaz gura daben guztia egiten dabelako.

I. ¿Zelan da Egille edo Criadorea?

E. Gauza guztiak ezebezetik egin zitzuzalako.

I. ¿Zelan da Salbagillea?

E. Gracia edo doea emon eta pekatuak parkatu egiten dituzalako.

I. ¿Zelan da glori-emollea edo glorifikadorea?

E. Bere doe edo gracion dirauneai gloria emoten deuselako.

I. ¿Badau Jainkoak, guk legez, gorputzearen ichurarik?

E. Jainko dan aldeez eztau, espiritu utsa dalako, baña bai gizona danez.

I. ¿Jainkozko iru personetatik zein egin zan gizon?

E. Bigarrena, zein dan Semea.

I. ¿Aita egin zan gizon?

E. Ez, jauna

I. ¿Espiritu Santua egin zan gizon?

E. Ez, jauna.

I. Zein bada?

E. Bakarrik Semea, zeñeri gizon eginda derichon Jesukristo.

I. Orrelan bada, nor da Jesukristo?

E. Jainko biziaren semea, gu zerurako erostearren eta guri ondo bizi izaten irakastearren gizon egin zana.

I. * Eta zeinbat izate, naimen eta adimen dagoz Jesukristogan?

E. * Izate edo naturaleza bi, bata jainkozkoa ta bestea gizonezkoa; naimen edo borondate bi, jainkozkoa bata ta gizonezkoa bestea; eta adimen edo entendimentu bi, bata jainkozkoa ta bestea gizonezkoa.

I. * Eta ¿zeinabat persona ta memori?..

E. * Persona jainkozko bakar bat, zein dan Irubatasun edo Trinitade guztiz santuko bigarreña, ta memori bakar bat, gizonezkoa bera, bada Jainkoa dan alde eztauko memoririk. *

I. ¿Zer esan gura dau Jesusen izenak?

E. Salbagillea edo gordetzallea.

I. ¿Zetatik gorde edo salbau genduzan?

E. Gure pekatuetatik eta cherrenaren katiguntzatik.

I. ¿Zer esan gura dau Kristoren izenak?

E. Unjidua.

I. ¿Zegaz unjidu izan zan?

E. Espiritu Santuaren graziaz eta doez.

I. ¿Jesuskristo gure Jauna zelan sortu zan Ama Birjiñagandik?

E. Jainko berak naturalezaren ganetiko egitade miraritsu bat eginda.

I. * ¿Eta mirariz edo milagro zelan iaio zan?

E. * Maria guztiz santearen sabeletik, beronen birjiñatasunaren kalte barik urtenda, eguzkiaren errañuak kristal batetik berau ausi ez loitu barik urteten daben legez.

I. * ¿Zegaitik ill gura izan eban kurutzean gugaitik?

E. * Gu pekatutik eta betiko eriotzatik gordetearren.

I. * ¿Ba zelan iausi giñean eurotan?

E. * Geure lenengo Aita Adanek pekatu eginda, zeñegaz danok pekatu egin genduan.

I. Jesukristo il ta gero iatzi zan infernuaren izenagaz zer aitu edo ubertuten dozu?

E. Ez kondenaduen lekua, ezpada onak egozan linboa baño.

I. * Inpernu bat baño geiago dago ala?

E. * Bai, jauna, lau dagoz lurraren barruan, eta deriche: kondenaduen inpernua, garbitegi edo purgatorioa, seiñen edo aurren linboa ta justuen linboa edo Abrahannen kolkoa.

I. * Eta zertzuk dira orrek?

E. * Kondenaduen inpernua da arako pekatu mortalean ilten direanak betirau-nean bertan erretan ta neketan egoteko doazen lekua. Garbitegi edo Purgatorioa da, arako graciazko egoerean, baña euron pekatuen zorra ondo ordaindun barik ilten direan arimak, bertan neke izugarriekaz garbituak izateko, doazen lekua. Aurren linboa da, arako errazoiaren argitara eldu baño len, bateatu barik il direan arimak doazen lekua. Eta justuen linboa edo Abrahannen kolkoa da, arako gure erosketa edo erredentziñoa egin zan baño len, Jainkoaren gracion ilda, oso osoan garbituta ioaten zirean arimen lekua, ta arako Jesukristo egiaz eta benetan iatzi zan leku berbera.

I. ¿Zelan iatzi zan?

E. Arimea Jainkotasunari batuta.

I. ¿Ta bere gorputza zelan geratu zan?

E. Jainkotasun beragaz batuta.

I. ¿Zelan biztu zan irugarren egunean?

E. Bere gorputz eta arima gloriáz beteá, iñoiz geiago ez ilteko, batuten zireala.

I. ¿Zelan igo eban zeruetara?

E. Berez, beste iñoren indar barik.

I. ¿Aita Jainkoaren eskumatatik iarrita egotea zer da?

E. Jainkoa dan aldetik berak beste, ta gizona dan aldetik beste edozein gizonek baño gloria geiago eukitea.

I. ¿Noiz etorriko da biziak eta illak epaitu edo juzgetara?

E. Munduaren azkenean.

I. ¿Eta il guztiak biztuko dira orduan?

E. Bai, jauna, len eukezan gorputz eta arimakaz.

I. * ¿Eta munduaren azkena izan baño lenago, izango dira gizonak epaitu edo juzgatuak?

E. * Bai, jauna, guztiak euron bizitzaren azkenean epaitu ta ebatsidu edo sententziako ditu Jaunak: onak, Jainkoaz betiraunean glorian gozetako; eta deungeak, inpernuan betiko nekeak iragoteko. *

I. ¿Santuen comunioan ziniztuten dozula diñozunean, zer ziniztuten dozu?

E. Kristiñau zintzo guztiak daukela partea besteen espirituko ondasunetan, gorputz bateko zatiak legez, zein gorputz dan Eleisea.

I. ¿Zer da Eleisea?

E. Da kristiñau zintzo guztien batzarra, Aita Santua buru dala.

I. ¿Nor da Aita Santua?

E. Erromako Abade Nagusia, lurrean Kristok bere ordekozak ipiñia, zein eri guztiok obedecidu bear deutzagun.


I. ¿Kredoa ta zinizgai edo fedeko artikuluz ganera besterik ziniztuten dozu?

E. Bai, jauna, Eskritura santuan dagoan dana, ta Jainkoak bere Eleisari agertu deutzan guztia.

I. ¿Zertzuk dira orrek?

E. Ez niri itandu ori, ez-jakiña naz eta; baditu Eleisa Ama Santeak iakitunak orretara erantzuten iakingo dabenak.

MAISUAK.—Ondo diñozu, Eleisako irakas-lai dagoke, ta ez zueri, zinizte-gauzetan kontu ta erakuste zeatzagoa emotea: zuentzat zinizgai edo artikuluen kontua, kredoa dagozan legez, emotea, naiko da.



Bigarren atala

ZENĒTAN AZALDUTEN DAN ZER ESKATU BEAR DAN, ETA ELEISA AMA SANTEAREN ERREGU EDO ORACIÑOAK

Ikusi dogu zelan dakizun ziñiztu bear dozuna, zein dan lenengo bearra, gatozan orain bigarrenera, zeinĒtan erakusten dan zer eskatu bear dan. Esaizu:

I. Nok esan eban Aita gurea?

E. Jesukristok.

I. ¿Zetarako?

E. Erregututen guri irakasteko.

I. ¿Zer da erregututea?

E. Da Jainkoagana biotza iaso ta meze-deak eskatutea.

I. ¿Zeinbat eratakoa da arren edo oraciñoa?

E. Bitarikoa: gogozkoa ta abozkoa.

I. * ¿Zein da gogozkoa?

E. * Arimaren almen edo potentziai eraginda egiten dana, ekarririk burutara burumen edo memoriagaz, gauza onen bat,

bere ganean adimenagaz gomuta egiten dala, eta ekitaldi edo acto batzuk borondateaz egiten direala, esaterako, pekatuen damutasuna; edo erabagi bat edo beste, esaterako, autortu edo confesetako edo biziera barri bat egiteko erabagia.

I. * ¿Zein da abozkoa?

E. * Berba agiriekaz egiten dana, esate baterako, Aita gurea esaten dogunean egiten doguna.

I. * Ta ¿zelan erregutu bear da?

E. * Begiramen edo atentziñoagaz eta erregututen ekiñagaz. *

I. ¿Aita gurea diñozunean nogaz berba egiten dozu?

E. Geure Jaun ta Jainkoagaz.

I. ¿Non dago gure Jaun ta Jainkoa?

E. Leku guztietan, ta batez be Zeruan eta Altarako Sacramentu guztiz santuan.

I. * ¿Eta Kristo gizona dan aldetik non dago?

E. * Bakarrik zeruan eta Altarako Sacramentu guztiz santuan. *

I. Arren edo oraciñoen artean ¿zein da onena?

E. Aita gurea.

I. ¿Zegaitik?

E. Apostoluak eskatuta, Kristok bere aboz esan ebalako.

I. ¿Zegaitik geiago?

E. Karidade osotik datozen zazpi eskari dituzalako.

I. ¿Zeintzuk dira?

E. Lenengoa, santificadua izan bedi zure izena.

I. ¿Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Ezagutua ta onradua edo goratua izan deitela Jainkoaren izena mundu guztian.

I. ¿Zein da bigarrena?

E. Betor gugana zeure erreiñua.

I. ¿Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Bizi deitela nagusi Jainkoa gure arimetan emen lurrean, bere doe edo graciaz, eta gero zeruan gloria emon deizkula.

I. ¿Zein da irugarrena?

E. Egin bedi zure borondatea, zelan zeruan alan lurrean.

I. ¿Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jainkoaren gura-izatea egin dagigula lurrean gagozanok, zeruan zorionekoak egiten daben legez.

I. ¿Zein da laugarrena?

E. Emon eiguzu gaur geure egunean eguneango ogia.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jainkoak emon deizkula gorputzari iagokon elikatura edo mantenimentua, ta gracia ta Sakramentuak arimearentzat.

I. ¿Zein da bostgarrena?

E. Parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk

geure zordunai parkatuten deutsaguzan legez.

I. ¿Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Parkatu deizkuzala Jainkoak geuri geure pekatuak, geuk iraindu gaituenai ta gach egin deuskunai parkatuten deutsegun legez.

I. ¿Zein da seigarrena?

E. Ez eiguzu ichi tentaciñoan jausten.

I. ¿Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Ez deizkula ichi Jainkoak, deabruak jausi eragiteko ustez ekarten deuskuzan burutasun gaiztoetan iausten, ezta orrei lekurik emoten be.

I. ¿Zein da zazpigarrena?

E. Baña gorde gagizuz gachetik.

I. ¿Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jainkoak gorde gagizala arimako ta gorputzeko gach eta arrizku guztietatik.

I. ¿Baña zegaitik esaten dozu asieran *Aita gurea zeruetan zagozana?*

E. Jainkoagana biotza iasoteko, ta apaltasun edo umiltasunez eta ustakidaz edo konfiantzaz berari eskatuteko.

I. Arako *amen* azkenean esaten dozun berbeak zer esan gura dau?

E. Alan izan dedilla, alanche iazongo alda.

I. ¿Ze arren edo oraziño esaten deutzazus sarrien Ama Birjiñeari?

E. Abe Maria ta Salbea.

I. ¿Nok esan eban Abe Maria?

E. Aingeru San Gabrielek Ama Birjiñeari agurra egitera etorri zanean.

I. ¿Nok esan eban Salbea?

E. Eleisa Ama Santeak dauka artuta.

I. ¿Zetarako?

E. Ama Birjiñeari mezedek eskatuteko.

I. ¿Abe Maria edo Salbea diñozunean nori zaiagokaz?

E. Birjiña Maria geure Ama andreari.

I. * * ¿Nor da Birjiña Maria gure Ama Andra ori?

E. * * Da onoidadez edo birtutez beteriko andra bat, Jainkoaren Ama eta zeruan dagoana, ta bere izateko lenengo lipart edo instantetik iatorrizko pekatuaren orban barik sortua. * *

I. Eta altaran dagoana ¿nor da?

E. Zeruan dagoanaren antz eta irudia.

I. ¿Zetarako dago altaran irudi au?

E. Beronen bidez zeruan dagoanagaz gomuta gaitezán, eta bere ichura dalako erreberentzia egin daiogun.

MAISUAK.—Egizu bada olanche, beste santuen irudiakaz eta euron gorputzki edo erreliquiakaz bere.

I. ¿Aingeru ta santuai be erregutu bear deutsegu?

E. Bai, jauna, geure bitartekoai legez

I. ¿Zer dira aingeruak?

E. Zeruan Jainkoa gozetan dagozan es-
piritu zorioneko batzuk.

I. ¿Zetarako egin zituzan Jainkoak?

E. Bera beti beti alabau ta bedeinkatu
dagien.


I. ¿Eta zetarako geiago?

E. Bere ministroak legez Eleisea zaindu
ta gizonak gordetako.

I. Beraz ¿zuk be badozu gordetan zai-
tuzan aingerua?

E. Bai, bankat, eta gizon bakochak be-
rea dauka.

MAISUAK.—Izan egiozue onerazpen edo
devociño andia ba, ta erregutu berari egu-
naro.



Irugarren atala

ZEÑETAN AZALDUTEN DAN EGIN

BEAR DANA



Ikusi dogu zer ziniztu ta zelan eskatu bear dozun; dakuskun orain zelan dakizun zer egin bear dan. Esaizu:

I. ¿Zein da Jainkoaren legeko lenengo agindua?

E. Jainkoa gauza guztien ganean maite-tutea.

I. ¿Nok dau maite Jainkoa?

E. Bere aginduak gordetan dituzanak.

I. ¿Zer da gauza guztien ganean bera maite izatea?

E. Bera iraindu baño gauza guztiak galdu naiago izatea.

I. ¿Onezaz ganetik zetara beartu edo obligetan gaitu agindu onek?

E. Bera bakarrik gorputzeko ta arima-ko erreberentziarik andienagaz adoretan, zinizte biziaz beragan ziniztuten dogula.

I. * ¿Nok pekatu egin daroa agindu onen kontra?

E. * Jainko guzurrezkoak eta euron irudiak gurtu edo adoretan dituzanak edo eurotan ziniztuten dabena; fedearen kontrako gauzaren bat ziniztu edo zinizteko gauzetan ezbai edo dueda euki daroenak; zerura-biderako bear dan beste eztaianak; zinizteko, icharopenezko eta maitetasun edo karidadezko egitadak egin bear dabenezan egiten eztabezanak, Jainkoaren errukitasunaganako icharopena galduten dabena, baita sakramenturen bat bear eztan legez artuten dabena. *

I. ¿Nok geiago?

E. Aztruai ziniztea emoten deutesenak, eta sorginkerietan diarduenak.

I. ¿Zein da bigarren agindua?

E. Juramentu bide bagakorik ez egitea.

I. ¿Nok egin daroa juramentu bide bagakoa?

E. Guzurregaz, zuzentasun barik edo bear-izanik baga juramentu egiten dabena.

I. * ¿Eta ze pekatu egiten dau, guzurregaz edo guzurra dalakoan juramentu egiten dabena?

E. * Pekatu ilkor edo mortala, gauza ariñean izan arren be.

I. * ¿Zer da zuzentasun baga juramentu egitea?

E. * Gauza oker edo charrerako juramentu egitea, esaterako, lagun urkoari kalte egiteko ustez.

I. * ¿Ta ze pekatu egiten dau zuzentazun baga juramentu egiten dabena?

E. * Pekatu ilkor edo mortala, gauza oker ori astun edo grabea bada; eta ezpada, pekatu ariñ edo beniala.

I. * ¿Zer da bear-izanik baga juramentu egitea?

E. * Juramentu egiteko zio edo motivo andi baga, edo gauza gichigaitik juramentu egitea.

I. * ¿Ta au ze pekatu da?

E. * Ariña, egiaz eta zuzentasunez egiten bada.

I. * ¿Eta juramentu egiten dabena edo promes egiten dabena gauza on bat egiteko, gauz on au egitera bearturik edo obligaurik dago?

E. * Bai, jauna; ta juramentu edo promes ori ez betetea edo bete barik lar luzaro eukitea pekatu ilkorra da, eskeiñi dan gauzea ariña ezpada.

I. * Eta ezeri ez daokala kriaturakaitik juramentu egitea pekatu da?

E. * Bai, jauna, eurretan Egilleari egiten iakolako.

I. * ¿Zer egin geinke juramentu bidebagakorik ez egiteko?

E. * *Bai* edo *ez* esateko ekandua artu, Kristok irakasten deuskun legez.

I. * Debekau edo eragozten da besterik ezer agindu onetan?

E. * Bai, jauna; eragozten da baita birao edo blasfemia, zein dan Jainkoaren eta bere santuen kontra berba iraingarriak esatea, ta da pekatu ilkor edo mortala. *

I. ¿Zein da irugarren agindua?

E. Jai-egunak ondo gordetea.

I. ¿Jai-egunak nok gordetan dituz?

E. Eurotan meza-osoia entzun, eta premiña-barik lanik egiten eztabenak.

I. * ¿Eta premiña barik jai-egunean bear egiten dabena ze pekatu egiten dau?

E. * Ilkor edo mortala, ordu bitik gorra lanean badiñerdu; gichiagotan badiñerdu, ariña geienetan.

I. ¿Zein da laugarrena?

E. Aita ta ama ondretea.

I. ¿Nok ondretan ditu gurasoak?

E. Euren esan onak egin, eurai lagundu ta lotzea gordetan deutesenak.

I. ¿Nor besterik ulertu edo aituten da gurasoen izenagaz?

E. Urteetan edo edadean, duiñtasunean eta aginpidean nagusiago direanak.

I. ¿Zein da bostgarrena?

E. Ez iñor iltea.

I. ¿Zer aginduten da agindu onetan?

E. Iñori gachik ez egitea, ez egitez, ez berbaz ez gura-izatez.

I. * ¿Nok egiten dau pekatu mortala agindu onen kontra?

E. * Norberari edo lagun urkoari erio-tzea edo beste gach andiren bat opa deutsanak; edo gorrotoa deutsanak; beste bat il edo zaurituten dabena, edo bultzaka edo ioka darabilena; moskortuten danak; larregian ian edo edaten dabena, osasunaren kalterako gauzak iaten dituzanak, bere burua arriskuan ipiñi edo ilten dabena, eta norberari edo beste bateri maldi-ciñoa iaurtiten deutsanak. *

I. ¿Zein da seigarrena?

E. Aragizko pekaturik ez egitea.

I. ¿Zer aginduten da agindu onetan?

E. Izan gaitezala garbiak eta orban ba-geak geure burutasun, berba ta egite guz-tietan.

I. * ¿Nortzuk egiten dabe pekatu mortala agindu onen kontra?

E. * Dakiela burutasun nasaietan atse-ginduten direanak, gauza zantarrak esan edo kantau edo pozarren entzun egiten dituzanak, eta eurenez edo beste iñogaz egite ezañak egin edo egiteko asmoa daukenak. *

I. ¿Zein da zazpigarrena?

E. Ezer ez ostutea.

I. ¿Zer aginduten da agindu onetan?

E. Jaubeak gura ezabela, inoren gauzarik ez kendu ez artu ez euki ez euki-gurazate.

I. * ¿Nortzuk egiten dabe pekatu mortala agindu onen kontra?

E. * Onetariko zerbait egiten dabena, edo beste edozelan lagun urkoari kalte andiren bat egiten deutenak. *

I. ¿Zein da zortzigarrena?

E. Testimonio guzurrezkorik ez ezartea ta guzurrik ez esatea.

I. * ¿Zer aginduten da agindu onetan?

E. * Zio edo motibo barik lagun urkoagaitik juzgu charrik ez egitea, ta bere utsegiteak ez esan ta ez entzutea.

I. * ¿Nok austen dau agindu au?

E. * Zio edo motibo naiko baga juzgua egin eta lagun urkoari izen ona kendu, bere issilleko edo secretoko gauzea agertu edo guzurra esan egiten dabena.

I. * ¿Eta onetariko zerbait lagun urkoari gauza astun edo gravean egiten deutenak, autortu edo konfesau arren be, bauko iraindu dabena gano egin-bearren bat?

E. * Bai, jauna; bear-bearreko gauzea dau, lagun urkoari kendu deutan ondrea ta izen ona atzera biurtutea. *

I. ¿Zein da bederatzigarrena?

E. Lagun urkoaren emazterik ez gurazate.

I. ¿Zein da amargarrena?

E. Besteen ondasunik ez gura izatea.

I. ¿Zer debekau edo eragozten da berderatzi ta amargarren aginduetan?

E. Aragizko atsegiñen eta iñoren ondasunen gurari bide bagakoak.

MAISUAK. - - Esaizus Eleisa Ama Santearen aginduak.

ELEISA AMA SANTEAREN AGINDUAK

DIRA BOST

Lenengoa, domeka ta jai guztietan meza osoa entzutea.

Bigarrena, urtean bein gichienez autortu edo konfesetea, ta lenago, ilteko arris-
kurik badago edo komulgau bear bada.

Irugarrena, Pazkoa loratsuetan komulgetea.

Laugarrena, Eleisa Ama Santeak aginduten dabenean barau egitea.

Bostgarrena, amarren eta primiciak, edo onen ordeaz agindurik dagoana, zuzen ordaindu edo pagetea.

I. ¿Zetarako dira agindu onek?

E. Jainkoarenak obeto gordetako.

I. * ¿Eta nortzuk bete bear dabe lenengo agindua, meza osoa entzuteko aginduten dabena?

E. * Errazoiaren argitara eldu direan bateatu guztiak.

I. * ¿Eta zelan entzun bear dabe?

E. * Gauza santuren baten gomutea dala, berari begira egonda, esaterako, gomutau edo errezau onerazpenez egiten dala.

I. * Eta zio edo motivo naiko barik mezea ez entzun, edo meza osoa edo bere zati arduragarri bat begiramen barik entzun egiten dabena, eta ez entzuteko arriskuan jartzen danak ze pekatu egiten dabe?

E. * Pekatu ilkor edo mortala.

I. * ¿Eta nortzuk dagoz bearturik edo obligaurik urtean bein konfesetan eta Pazko garizumakoetan comulgetan?

E. * Errazoiaren argitara eldu direan kristiñau guztiak.

I. * Eta ilteko arriskuan konfesore baga aurkituten danak ¿zer egin bear dau?

E. * Kontriziñozko egitada bat (errezau biotz biotzetik, esaterako, Neure Jesukristo Jauna), al danean autortu edo konfesetako usteagaz.

I. * Eta laugarren agindua, baraua aginduten dabena ¿nortzuk bete bear dabe?

E. * Ogetabat urterik gorakoak (irurogeira eldu arte).

I. * ¿Eta baraua zelan egingo da?

E. * Debekauta dagozan ianariak ichi ta almorsurik ez aparirik egiten ezuala.

I. * ¿Eta agindu au ausi barik, artu lei ezer goizean?

E. * Zioagaz, zio edo motivoa ariña izan da be, artu daiteke ontza bat inguru.

I. * ¿Eta gaubean?

E. * Artu lei kolasiñuan, kontzentzi oneko jenteak oituten daben beste, ta durarik dagoanean, itanduten iako autorle edo confesoreari.

I. * ¿Eta barau egin al izanda, egiten eztabenak ze pekatu egiten dau?

E. * Ilkor edo mortala.

I. * ¿Barau egiteko agindua noiz bete bear da?

E. * Garizumako astegun eta iai-egun guztietan, domekak apartauta; urteko lau temporetako iru egunetan, au da, eguazteenan, barikuan ta sapatuan; Abenduko bariku ta sapatuetan: Gabon egunean, Maiatz-Pazko besperan, San Pedro-besperan, Santiago-besperan, Agostuko Andra Mari-besperan, eta Domuru-Santuru edo Santu guztien besperan.

I. * ¿Eta ogetabat urtera eldu eztireanak bauke egin-bearren bat barau-egunetan?

E. * Bai, jauna; okelarik ez iatea, eta Garizuman barriz, okelarik ez arrautza-gauzarik ez ezne-gauzarik eziñ artu leie.

I. * ¿Barau egunez ganera, beste egu-

nen baten bere egon bear da okelarik ian barik?

E. * Bai, jauna; Garizumako domeketan eta urteko bariku guztietan.

I. * ¿Eta ze pekatu egiten dabe agindu onek beteten eztabezanak?

E. * Pekatuk ilkor edo mortala, eurak austen dabezan ordu bakochean.

I. * ¿Ta Españan badogu, okela, arrautza ta ezne-gauzea egun debekauetan artzen ichiten deuskun mezedelege edo privilejioren bat?

E. * Bai, jauna; Kruzada santuko buldea, eta Okelako buldea derichon mezedelegea; baña eurak euki-arren, ezin lei naztau arraingauzea ta okela-gauzea barau-egun eta Garizumako domeketako iatorduetan; eta onezaz ganera, ezta okelarik ian bere, mezedelegeok eukita be, Autzaren egunean, Garizumako barikuetan, Aste Santuko azkenengo lau egunetan, Gabon-egunean, Maiatz-Pazko besperan, San Pedro besperan ta Andra Mari Agostukoaren besperan.

I. * ¿Zer egiten da bulda santuen diruagaz?

E. * Kruzadakoaz artzen dana da Eleisa chiro edo pobreetarako, eta Okelako buldeagaz artzen dana hospitaletara, misericordi-etsetara ta orlako etse mezedegarrietara doa. *

MAISUAK.—Esaizu Misericordiazko obrak.

ERRUKITASUNEZKO EGITADAK

EDO OBRA MISERICORDIAZCOAK

dira amalau, lenengo zazpirak dagokaz arimeari eta beste zazpirak gorputzari.

ARIMEARI DAGOKAZANAK DIRA ONEK

Lenengoa, eztakianari irakastea.

Bigarrena, bear dabenari esondé edo kontzeju ona emotea.

Irugarrena, utsegin dabena zuzendutea.

Laugarrena, irain edo injuriak parkatutea.

Bostgarrena, tristeak consolatea.

Seigarrena, lagun urkoaren argaltasunak pacientziaz eroatea.

Zazpigarrena, bizi ta illakgaitik Jainkoari erregututea.

GORPUTZARI DAGOKAZANAK DIRA ONEK

Lenengoa, geissoak ikustau edo bisitetea.

Bigarrena, gose danari iaten emotea.

Irugarrena, egarri danari edaten emotea.

Laugarrena, katiguak katigutasunetik ataratea.

Bostgarrena, billoizik dagoana iantzitea.

Seigarrena, bidezko eskekoai ostatua emotea.

Zazpigarrena, illak lurperatu edo enterrete.

I. * ¿Zegaitik deriche errukitasunez-koak?

E. * Justiciaz zor eztirealako.

I. * ¿Noiz zor doguz pekatuaren bean?

E. * Ondo dakienaren eritziz, lagun urkoaren estutasuna andia danean.

I. * ¿Eta errukitasunézko egitada onekaz, eta beste egitada on azkoren bidez, zer iadichiten dau kristiñauak?

E. * Eurak egiten dituzanean Jainkoaren gracion badago. mereciduko dau euron bidez, gracia ta gloria geiago, kitutuko dau eurokaz pekatu autortuak ichi eutsen zorra eta iadichiko ditu Jaunagandik ondatsun ugariak, arimearentzat zein gorputzarako, konbeni baiako.



Laugarren atala

ZEÑETAN AZALDUTEN DIREAN ZAZPI SAKRAMENTUAK

Ikusi dogu bakizula zer ziniztu, zer eska-
tu ta zer egin bear dozun: dakuskun zelan
dakizun zer artu bear dozun, ta au da az-
kenengo gauzea: esaizus sacramentuak.

ELEISA AMA SANTEAREN

SAKRAMENTUAK

*dira zazpi: lenengo bostak dira bear bearre-
koak, izatez edo borondatez, zeintzuk barik
gizona ezin salbau leiteken, destaiñez ichi-
ten baditu edo gauza gichitzat eukita artzen
ezpaditu; beste biak borondatezkoak dira.*

Lenengoa, Bateoa.

Bigarrena, Konfirmaciñoa.

Irugarrena, Autorkuntza edo Confesiñoa.

Laugarrena, Komunioa.

Bostgarrena, Oleaziñoa.

Seigarrena, Ordea edo Eleis-gizontzea.
Zazpigarrena, Eskontzea.

I. ¿Ze gauza dira sakramentuak?

E. Dira Kristo gure Jaunak sorturiko ezaugarri agiri batzuk, euron bitartez bere grazia ta onoidade edo birtuteak guri emoteko.

I. ¿Zer da grazia?

E. Da jainkozko izate bat, gizona Jainkoaren seme ta zeruko iabe-gei edo erederu egiten dabena.

I. ¿Graciagaz batera ze onoidade edo birtute emon daroe sakramentuak?

E. Batez be iru, jainkozko edo teologalak.

I. ¿Zeintzuk dira?

E. Ziniztea, icharopena ta goi-maitetze edo karidadea.

I. ¿Zer da zinizte edo fedea?

E. Ikusi eztoguna ziniztutea, Jainkoak alanche erakutsi dabelako.

I. ¿Zer da icharopena?

E. Zeruko gloria Jainkoaren graciaz eta gure egite onen bidez icharotea.

I. ¿Zer da karidadea?

E. Jainkoa gauza guztien ganean maitetutea, ta geure lagun urkoak geure burua legez, eurak geuri egitea gura geunkeana eurai egiten deutsegula.

I. ¿Zetarako da Bateoko Sacramentua?

E. Pekatu iatorrizko edo originala ta

bateatuten danagan egon leitiken beste edozein pekatu kenduteko.

I. ¿Zer da iatorrizko pekatua edo pekatu originala?

E. Geure lenengo gurasoetatik iator-kuna, zeñetan sortuten garean. (1).

I. * Ta estualdi edo premiña andi baten ¿nok bateatu daike?

E. * Errazoiaren argian dagoan edozein andra edo gizonek.

I. * ¿Eta zelan bateatuko dau?

E. * Umearen burura ur garbi edo naturala issuriten dabela, bateatuteko us-teaz berba onek esanagaz: *Nik bateatuten zaitudaz Aitearen Semearen ta Espiritu Santuaren izenean.* *

I. ¿Zetarako da Konfirmaciñoako Sacramentua?

E. Bateoan artu genduan ziniztean sendoago ta indartsuagoak egiteko

I. * Ta errazoiaren argitara elduta, sakramentu au pekatu mortalean artuten dabena ¿pekatu barria egiten dau?

E. * Bai, jauna; pekatu ilkor edo mortala.

I. * ¿Zer egingo dau ba bera artuteaz pekaturik ez egiteko?

E. * Egin lenago autorkera edo konfesi-ño on bat. *

(1). Jesukristo ta Ama Birjiñea ez, beste guztiok.

I. ¿Zetarako da Penitentziako Sakramentua?

E. Bateatu ezkerro egin direan pekatuak parkatuteko.

I. ¿Ze pekatu dira onek?

E. Ilkorrak eta ariñak, au da, mortalak eta benialak.

I. ¿Zer da pekatu ilkor edo mortala?

E. Da esatea, egitea, uste izatea edo gura izatea zerbait Jainkoaren legearen kontra gauza astunean.

I. ¿Zegaitik dericho ilkor edo mortala?

E. Pekatu onek berau egiten dabena-
ren arimea ilten dabelako.

I. * ¿Eta noiz artzen dogu Penitentziako Sakramentua?

E. * Ondo autortu edo konfeseuta absoluziñoa artzen dogunean. *

I. ¿Zeinbat zati ditu Penitentziak pekatu ilkorra kenduteko.

E. Iru, jauna.

I. ¿Zeintzuk dira?

E. Biotzeko damutasuna, aozko autor-
kera edo konfesiñoa, ta egitadezko naiko-
tasun edo satisfaciñoa.

I. Eta Sakramentu au ondo artu gura dabena bear dituzan iru gauzotan ¿zartzen dira besteren batzuk be?

E. Bai, jauna; biotzeko damutasunean sartzen da onduteko erabagi edo proposi-

tua, eta konfesiñoan, kontzientziako azterketa edo examiñea.

I. * Olan ba, ¿zeinbat gauza bear dira ondo autortu edo konfesetako?

E. * Bost, jauna; kontzientzako azterketa edo examiñea, damua, erabagi edo propositua, konfesiñoa ta naikotasun edo satisfaciñoa.

I. * ¿Zer da kontzientziako azterketea?

E. * Autortu eztirean pekatuak alegiñez burutara ekartea, begiturik Jainkoaren eta Eleisaren aginduen kontra utsegiteren bat norberak egin ete daben, nondik eta nora ibilli dan, zelango zer-egiñetan iardun daben, eskaturik onetarako Jainkoari norbere utseguiteak ezagututeko bear dan argia.

I. * ¿Zeinbat eratara da biotzeko damutasuna?

E. * Bitara; contriciñozkoa bata, ta atriziñozkoa bestea.

I. * ¿Zer da kontriziñozko damua?

E. * Norbere pekatuai gorroto izatea, eurakaz iraindu dabelako Jainkoa, bera guztiz ona ta maitegarria izanda, autortuteko onduteko ta penitentzia betetako asmoagaz.

I. * ¿Zer da atriziñozkoa?

E. * Norbere pekatuai gorroto izatea, eurakaz Jainkoa iraindurik, zerua galdu ta inpernura ioateko arrisku andian dagolako,

edo pekatua gauza ezain ezaiña dalako, autortuteko, onduteko ta penitentzia betetako asmoagaz.

I. * Eta damutasun biotarik ¿zein da onena?

E. * Kontriziñozkoa.

I. * ¿Zegaitik?

E. * Kontriziñozkoa maitetasun semetarretik datorrelako, atriziñozkoa barriz bildurrak sortuten dau; kontriziñozkoa daukanari, autortu baño lenago parkatuten iakoz bere pekatuak eta ipinten da Jainkoaren grazian; baño atriziño utsagaz eztira lortuten gauza eder onek.

I. * Eta ondo autortu edo konfesetako naiko da atriziñozko damua ala bear da kontriziñozkoa?

E. * Geienak diñoe naiko dala atriziñozkoa; baño oba da kontriziñozkoa eroatea, ta au eukiteko alegiñak egin bear ditu autortutera doanak.

I. * ¿Eta damua noiz euki bear da?

E. * Abadearen parkatasun edo absolucioa artu baño lenago.

I. * ¿Zer da erabagi edo propositua?

E. * Jainkoa gauza astunean barrero ez irainduteko asmo sendo bat.

I. * ¿Zer da aozko autorkera edo konfesiñoa?

E. * Abade konfesoreari pekatu guztiak, mortalak beintzat, esatea, gichitu ez

edertu baga, ta penitentzia betetako ustea-
gaz.

I. * Eta lotzaz pekatoren bat konfeso-
reari ezta, edo egin eztaben pekatu
mortalen bat berari esan, edo damutasun
baga, erabagi baga, edo penitentzia beteta-
ko uste baga, autortu egiten dabena, ¿ondo
konfesetan da?

E. * Ez, jauna; deuniraiñ edo sakrile-
jio andi bat egiten dau, ta autortu edo kon-
fesau bear ditu urrengoan, lenbait len, au-
tortu zituzan eta autortu barik ichi zituzan
konfesiño atako pekatu guztiak eta egin
eban sakrilejioa.

I. * ¿Zer da egitadezko satisfaciñoa?

E. * Jainkoari pekatuagaitik zor deu-
tsaguzan penak kitututea, beteturik aba-
deak emoten deuskun penitentzia.

I. * ¿Eta ze pekatu egiten dau peniten-
tzia betetu barik geratu edo penitentzia
bete barik denpora geiegian egon egiten
dabenak?

E. * Pekatu ilkor edo mortala, peni-
tentzia ori astuna bada, arduragarria bada.

I. * ¿Eta kitutu geinkez Jainkoari zor
deutsaguzan denporazko penok, emoten
iakun penitentzia ez beste ezegaz?

E. * Bai jauna, Jainkoaren gracion egi-
ñiko egitadakaz, eta parkamen edo indul-
jentziak irabaziaz.

I. * Eta ¿zer dira parkamen edo indulgentziak?

E. * Doe edo gracia batzuk, zeintzuen bidez parkatzen direan bizitza onetan edo bestean ordaindu bear geunken neke edo pena denporazkoa.

I. * ¿Eta zelan irabazi bear dira parkamenok?

E. * Onetarako aginduten dana graciazko egoerean edo estadu gracizkoan eginda.

I. * Eta bizitza onetan neke orrek kitutu ezebezalako Garbitegi edo Purgatorioa doazenai ¿lagundu ta mezedo egin geioe?

E. * Bai, jauna; geure neke edo penak kitutu geinkezan egitade eurakaz. *

I. ¿Eta norberak, pekatu ilkorrean iausten dan bakochean, autortuten ioan bear dau, parkatu dakion?

E. Ondo litzateke, baña ezta bear bearreko gauzea.

I. ¿Zer egin bear dau ba?

E. Bere pekatuen benetako kontriziñozko damua euki, onduteko asmoagaz, eta Eleisa Ama Santeak aginduten dabenean autortuteko usteaz.

I. ¿Zer da pekatu arin edo beniala?

E. Da pekatu ilkorraganako gertuera edo disposiciño bat.

Da esatea edo egitea edo gogoratutea

edo gura izatea gauza bat Jainkoaren legea-
ten kontra gauza ariñean.

I. ¿Zegaitik dericho ariña?

E. Arin, au da, errez gizona bertan iaust-
ten dalako, eta errez parkatuten iakolako.

I. ¿Zeinbat gauzagaitik parkatuten iako?

E. Bederatzigaitik

I. ¿Zeintzuk dira?

E. Lenengoa, mezea entzuteagaitik.

Bigarrena, gure Jauna artuteagaitik.

Irugarrena, *Ni pekatari au* esateagaitik.

Laugarrena, Apezpiku edo Obispoaren
bedeinkaziñoagaitik.

Bostgarrena, ur bedeinkatuagaitik.

Seigarrena, ogi bedeinkatuagaitik.

Zazpigarrena, *Aite gurea* esateagaitik.

Zortzigarrena, berbaldi edo sermoia en-
tzuteagaitik.

Bederatzigarrena, Jainkoari parka-eska-
tuten iakola, bularra ioteagaitik.

I. * ¿Eta autortu bear doguz pekatu
ariñak be?

E. * Ez, jauna, baña ondo da ta gauza
mezedagarria eurak autortutea.

I. * Eta ointsurengo konfesiñotik gora
pekatu arikak baño eztaukazanari ¿zer da-
goko damutasuna ta erabagia ziurtuteko?

E. * Onezaz ganera, bizitza zarreko
pekatu ilkor edo mortalen bat autortutea. ✽

I. ¿Zetarako da Komunioko Sakramentu
guztiz Santua?

E. Bear dan legez artuta gure arimen
ianari izateko eta gracia geiagotuteko.

I. * * * ¿Zeinbat gauza bear dira ondo
komulgetako?

E. * * * Lau, jauna.

I. * * * ¿Zeintzuk dira?

E. * * * Lenengoa, zer artuten dogun
iakitea.

Bigarrena, barau osoa, edo aurreko gau-
berditik gora komulgau-osteraño ezer jan
ez edan barik egotea.

Irugarrena, arimako garbitasuna.

Laugarrena, gorputzaren eta iantziaren
ichura ona, arrotasunik ez loitasunik bakoa.

I. * Eta konfesau ta gero, pekatu morta-
len bat burutara iatorkonak zer egingo dau?

E. * Autortu bera lenago

I. * ¿Zer artuten dozu Komunioko Sa-
kramentu guztiz Santuan?

E. * Kristo Jainko ta gizon egiazkoa,
altarako Sakramentu guztiz Santuan egiaz
dagoana.

I. * Olan ba, ¿zer dago hostian konsa-
grau ta gero?

E. * Jesukristoren gorputza, bere odol,
arima ta Jainkotasunegaz batean.

I. * ¿Eta kalizean?

E. * Jesu-Kristoren odola, bere gor-
putz, arima ta jainkotasunegaz batean.

I. * Olan ba ¿Jesukristo guztia dago
hostian eta kalizean konsagrau ta gero?

E. * Jesukristo guzti guztia dago hostia guztian eta guzti guztia baita beronen zatirik chikerrenean be, eta bardin kalizean.

I. *** ¿Zer dago hostian konsagrau baiño leenago?

E. *** Ogi-urunagaz egiñiko ogi apur bat.

I. *** ¿Eta kalizean?

E. *** Ardo apur bat ur tistil edo tantakada batzuekaz.

I. * ¿Eta konsagraciño-ostean, badago ogirik hostian edo ardorik kalizean?

E. * Ez, jauna; ardo ta ogiaren ichurak baiño ez; au da, usaiña, kolore edo margoa, ta gustua ta onetariko gauzak.

I. * Eta hostia zatituten bada, edo bannanduten bada kalizean dagoana, ¿zatituten da Jesu-Kristo?

E. * Ez, jauna; guztia geratuten da osorik zati danetan eta zati bakochean.

I. * ¿Eta pekatu mortalean komulgetan danak artuten dau Jesu-Kristo?

E. * Bai, jauna; baiña mezede edo provechu barik, pekatu ikaragarri bat egiñik artekoan ganera.

I. * Eta euron mezederako artuten dabena, ¿zer egin daike, agindu doguzan gauzen ganera, ekoizte edo frutu andia-goak irabazteko?

E. * Gomutau, komulgau baiño len, nor dan eurokana datorren Jauna, egin ziniztezko, icharopenezko ta maitetasun edo kari-

dadezko egitadak, artu bera umiltasun eta begirakune edo erreberentzi andiagaz, eta emon gero eskerrak mezedo aiñ andiagaitik. *

I. ¿Zetarako da Oleaciñoko Sakramentua?

E. Iru gauzetarako

I. ¿Zeintzuk dira?

E. Lenengoa, igaroriko bizitza char edo deungearen ondakin eta ondarrak kenduteko.

Bigarrena, arimeari deabruaren esetsien kontrarako indarrak emoteko.

Irugarrena, arimearen kaltean ezpada, gorputzari osasuna emoteko.

I. * ¿Eta errazoiaren argitara elduta, gaisorik ilteko arriskuan dagozanak, artu bear dabe sakramentu au?

E. * Bai, jauna; ta pekatu ilkorra egiten dabe al izanda artuten eztabenak, eta pekatu ilkor edo mortalean dagozala artuten dabenak.

I. * Ba, ¿zer egingo dau pekatu ilkorrean dagoanak sakramentu au ondo artuteko?

E. * Autortu edo konfesau lenago, eta ezin bada, egin kontriziño osoko egitadabat, * «Neure Jesukristo Jauna» esaten dala. *

I. ¿Zetarako da Ordeako Sakramentua?

E. Eleis-gizon duiñak egiteko; esatera-

ko: abadeak, diaconoak eta subdiaconoak.

I. * Eta eleis-gizonai, abadeai batez be, abegi ona ta aparteko lotzea izan bear iake?

E. * Bai, jauna.

I. ¿Zetarako da Eskontzako Sakramentua?

E. Eskonduteko ta eskonduai gracia emoteko, beragaz alkarren arteko bakean bizi eta zerurako seme-alabak azi daiezan.

I. * Eta sakramentu au ondo artuteko, eskondutera doazenak Jainkoaren gracion egon bear dabe?

E. * Bai, jauna; pekatu mortalaren bean.

I. * Eta Jainkoaren gracion eztagozanak zelan gertu edo prestauko dira sakramentu au artuteko?

E. * Autortu edo konfesauta.

PEKATU BURU EDO CAPITALAK

DIRA ZAZPI

Lenengoa, Andiuste edo Soberbia.

Bigarrena, Zekenkeri edo Avaricia.

Irugarrena, Nasaikeri edo Lujuria.

Laugarrena, Aserrea.

Bostgarrena, Salokeri edo Guleria.

Seigarrena, Ondamu edo Enbidia.

Zazpigarrena, Nagitasuna.

I. ¿Zegaitik deituten deutsezu pekatu onei buru edo kapitalak, ba geienetan daroe mortalaren izena?

E. Deriche buru edo kapitalak, diralako beste vicioen buru edo sustrai batzuek legez; eta mortalen izena barriz ez iatorke ondo; bada sarritan ariñak baño eztira.

I. ¿Noiz dira ilkor edo mortalak?

E. Jainkoaren eta lagun urkoaren maitetasunaren kaltean direanean.

I. ¿Zer da andiuste edo soberbia?

E. Besteak baño geiago izateko bidebagako gurari bat.

I. ¿Zer da zekenkeria?

E. Lurreko ondasunen bidebagako gurari bat.

I. ¿Zer da nasaikeria?

E. Gorputzeko atsegin loien erabagako gurari bat.

I. ¿Zer da aserrea?

E. Iñori gach egiteko bide bagako gurari bat.

I. ¿Zer da salokeria?

E. Iateko ta edateko bidebagako gurari bat.

I. ¿Zer da ondamura?

E. Besteñ zoriona ikusi-eziña.

I. ¿Zer da nagitasuna?

E. Gauza onetarako gogo eskaza.

ZAZPI BICIO ONEN KALTEZ EDO CONTRA DAGOZ

ZAZPI ONOIDADE EDO BIRTUTE

Andiustearen kaltez, Apaltasun edo Umiltasuna.

Zekenkeriaren kaltez, Prestutasuna.

Nasaikeriaren kaltez, Garbitasun edo Castidadea.

Aserrearen kaltez, Eroapen edo Pacientzia.

Salokeriaren kaltez, Ian-edanean begiratua izatea.

Ondamuaren kaltez, Maitetasun edo Caridadea.

Nagikeriaren kaltez, Prestasuna.

ARIMEAREN ARERIOAK IRU DIRA

Lenengoa, Mundua.

Bigarrena, Cherren edo Deabrua.

Irugarrena, Aragia.

I. * ¿Zer da mundua?

E. * Mundua dira gizon mundutar gaizto deungeak.

I. * ¿Nor da demonio edo cherrena?

E. * Da aingeru bat, Jainkoak zeruan egiña, ta bere Anditasunaren kontra beste asko lagun zituzala iagi zalako, Jainkoak inpernura iaurti ebana, bere lagun char eta guzti, zeintzuei deitzen deutsegun cherren edo demonioak.

I. * ¿Zer da aragia?

E. * Da geure gorputz bera bere griñ eta zaletasun charrakaz. *

I. ¿Zelan igesi egiten da munduagandik?

E. Bere arrokeri ta andigureak ezebezetzat eukita.

I. ¿Zelan igesi egiten da cherrenagandik?

E. Arren edo oraziñoaz eta umiltasunegaz.

I. ¿Zelan igesi egiten da aragiagandik?

E. Au ezi bear da laztasunekaz, gorputzari gurariak ukatu ta nekeak emonagaz eta baraukaz. Areriorik andiena au da, geugandik ba au ezin kendu dogu, mundua ta cherren edo deabrua barriz bai.

ONOIDADE EDO BIRTUTE

JAINKOZKOAK DIRA IRU

Lenengoa, ziniztea.

Bigarrena, icharopena.

Irugarrena, maitetasun edo caridadea.

I. * ¿Onoidade edo birtute onen ekitaldiak egiteko daukagun egin-bear edo obligaciñoa zelan beteko dogu?

E. * Kredoa ta Aite Gurea oneras-

penegaz eta sarritan (edozein kristiñauk egin bear daben legez), errezauaz, eta biotzez *Neure Jesukristo Fauna* esanaz.

ONOIDADE EDO BIRTUTE

KARDINALAK LAU DIRA

Lenengoa, Zurtasun edo Prudentzia.
Bigarrena, Zuzentasun edo Justicia.
Irugarrena, Sendotasun edo Fortalezeta.
Laugarrena, Baretasun edo Templantzeta.

GORPUTZAREN ZENTZUNAK

BOST DIRA

Lenengoa, begiakaz ikustea.
Bigarrena, belarriakaz entzutea.
Irugarrena, aogaz gustu artutea.
Laugarrena, surragaz usain egitea.
Bostgarrena, eskuekaz ukututea.

I. ¿Zetarako emon euskuzan Jainkoak zentzunak eta gorputzeko beste zati guztiak?

E. Guztiokaz gauza guztietan bera serbietetako.

ARIMEAREN ALMENAK IRU DIRA

Burumen edo memoria, adimen edo entendimentua, guramen edo borondatea.

I. ¿Zetarako emon euskun burumena?

E. Beragaz eta berak egiten deuskuzan mezedeakaz gomuta gaitezana.

I. ¿Zetarako emon euskun adimena?

E. Gure Jauna ezagutu ta beragan go-
goa eukiteko.

I. ¿Zetarako emon euskun guramena?

E. Bera ontasunik andiena legez eta
beragaitik lagun urkoa maitetuteko.

I. * ¿Eta almen onek daukazan gure
arimea zer da?

E. * Espiritu illezkor bat, Jainkoak eze-
bezetik bere antz eta irudira egiña. *

ESPIRITU SANTUAREN DOEAK

ZAZPI DIRA

Lenengoa, Iakiturizko doea.

Bigarrena, Adimenezko doea.

Irugarrena, Esonde edo Kontzejuzko doea.

Laugarrena, Iakindezko edo Cienciazko
doea.

Bostgarrena, Sendotasunezko doea.

Seigarrena, Errukizko doea.

Zazpigarrena, Jainkoaren bildurrezko doea.

ESPIRITU SANTUAREN EKOIZTE

EDO FRUTUAK AMABI DIRA

Lenengoa, Karidadea.

Bigarrena, Bakea.

Irugarrena, Arimako anditasuna.

Laugarrena, Errukitasuna.

Bostgarrena, Ziniztea.

Seigarrena, Continentzia.

Zazpigarrena, Poza.

Zortzigarrena, Eroapen edo pazientzia.

Bederatzigarrena, Ontasuna.

Amargarrena, Oztantasun edo mantsotasuna.

Amaikagarrena, Makurtasun edo modestia.

Amabigarrena, Garbitasun edo castidadea.

ZORIONTASUNAK DIRA ZORTZI

1. Zorionekoak gogoz chiro edo pobreak direanak, bada euren izango da zeruetako erreñua.
2. Zorionekoak otzan edo mantsoak, bada jaubetuko dira eurak lurraz.
3. Zorionekoak negar egiten dabena, bada poztu edo contsolauak izango dira.
4. Zorionekoak zuzentasunaren gose ta egarri direanak, bada asetuak izango dira.
5. Zorionekoak errukiorrak, bada eurak iadichiko dabe errukitasuna.
6. Zorionekoak biotz garbidunak, bada eurak ikusiko dabe Jainkoa.
7. Zorionekoak bake-zaleak, bada Jainkoaren semeen izena emongo iakie.
8. Zorionekoak onak direalako persekucioa iragoten dabena, bada euren izango da zeruetako erreñua.

I. ¿Zer esan dogu orain?

E. Zortzi zoriontasunak

I. ¿Zer dira zortzi zoriontasun onek?

E. Espiritu Santuaren onoidade edo birtuten eta doen egitadarik onenak.

I. ¿Nortzuk dira gogoz chiro edo pobreak?

E. Ondrarik ez aberastasunik laburrenak be, biotzez beintzat, gura eztabenak.

I. ¿Nortzuk dira otzan edo mantsoak?

E. Aserrerik ez aserrerako zirkiñik eztaukenak.

I. ¿Zelan jaubetuko dira lurraz?

E. Euren buruen jaube izanda.

I. ¿Nortzuk dira negar egiten dabenak?

E. Atsegiñik laburrenak be ichiten dituezanak.

I. ¿Nortzuk dira zuzentasunaren gose ta egarri direanak?

E. Alegiñez ezetan utsik egin gura eztabenak.

I. ¿Nortzuk dira errukiorrak?

A. Atzeentzat be biotz bigunekoak direanak.

I. ¿Nortzuk dira biotz garbidunak?

E. Euron griñ edo pasiñoak osoan eziten dituezanak.

I. ¿Nortzuk dira baketsuak?

E. Euron buru ta besteenetan bakea egiten dabenak.

I. ¿Nortzuk dira Justiciagaitik persekuciñoa iragoten dabena?

E. Inork eurai persekuciñoa egiñ arren be, gauza on danetan sendo dagozanak.

I. ¿Zegaitik deriche gauza onei zoriontasunak?

E. Lur onetako zoriontasuna ta Zeru-koaren icharopena eurotan dagolako.

I. * ¿Zeinbat dira azkenki edo *novisimoak*?

E. * Lau: Eriotzea, Judicioa, Inpernua ta Glori edo Zerua.

I. * ¿Zer da Gloria?

E. * Egoera guztiz on bat, zeñetan dagozan onera guztiak, gachik bat be eztala; inpernuan dagozan legez gach guztiak onik bat be eztala.

I. * ¿Eta onetatik burua gorde ta bestea (zerua) iadichiteko, zer egin bear dogu?

E. * Gorde aginduak.

I. * ¿Eta eurak errezago gorde al izateko, badagoz medioren batzuk?

E. * Bai, jauna.

I. * ¿Zeintzuk dira?

E. * Sakramentu santuak sarritan artzea, Jainkoari goizetan eguneko bearrak eskeintzea, egunaro mezea entzun ta errosarioa Birjiña guztiz Santeari errezetea; gogozko irakurketa edo lectura espiritualala; gogarte edo meditaciñoa; gaubetan kon-

tzentziaren azterketea egitea; eta autor-
tzale edo confesore jakitun, onoidadetsu
eta zur bat artu eta berak diñoana egitea.

KONFESIÑO JENERALA

EDO NI PEKATARI AU

Ni pekatari au autortu edo konfesetan na-
iako Jainko guztia al dabenari, Maria beti
Birjiña Dontsuari, San Migel aingeru nagu-
siari, San Joan Bautisteari, San Pedro ta
San Paulo Apostoluai, Santu ta Santa guz-
tiai, ta zeuri, neure arimako aita; pekatu
egin dodalako pentsamentuz, berbaz eta
egitez, neure erruz, neure erruz, neure
erru andiz. Eta orregaitik erregututen deu-
tsat Maria beti Birjiña Dontsuari, San Migel
aingeru nagusiari, San Juan Bautisteari,
San Pedro ta San Paulo Apostoluai, Santu
ta santa guztiai, ta zeuri, neure arimako
aita, erreguta dagiozula nigaitik neure Jaun
eta Jainkoari. Amen.

KONTRIZIÑOZKO EGINKIZUNA

EDO NEURE JESUKRISTO JAUNA

Neure Jesukristo Jauna, Jainko ta gizon
egiazkoa, neure Egille ta Salbagillea, za-
reana zarealako ta maite zaitudazalako gau-
za guztien ganean, damu dot, Jauna, biotz
guztitik, zeu iraindua; artzen dot gogo
sendo bat ez geiago pekaturik egiteko, au-

tortu edo confesetako, emoten iatan penitentzia betetako, ta pekatuko galbide edo ocasiñoetatik alde egiteko: eskeintzen deustudaz nire bizitzea, lanak eta nekeak neure pekatuen kitugarritzat; eta icharoten dot zeure ontasun eta errukitasun andian partakutako deustazuzala, ta emongo deustazula gracia onduteko neure bizitzea ta irauteko zeu serbietan eriotzako orduraño. Amen.

Zinizte, icharopen eta maitetasunezko eginkizunak

ZINIZTEZKO EGINKIZUNA

Ziniztuten dot Aita Jainkoagan.

Ziniztuten dot Seme Jainkoagan.

Ziniztuten dot Espiritu Santu Jainkoagan.

Ziniztuten dot Irubatasun edo Trinite gultiz Santuan, iru persona banako ta egiazko Jainko bakar bategan.

Ziniztuten dot bigarren personea, Jainkoaren semea, gizon egin zala, Ama Birjiñearen sabel garbian Espiritu Santuaren egitez eta graziaz, iaio zala, ta ill zala gero kurutzean gu salbetearren, biztu zala ta igon ebala zeruetara.

Ziniztuten dot berau etorriko dala judizio-ko egunean biziak eta illak epaitu edo juzgetara; onai emongo deustela betiko gloria ta deungai betiko inperua.

Ziniztuten dot Eleisa Ama Santeak darakuskun guzti guztia, ta zinizte onetan bizi ta ill gura dot.

ICHAROPENEZKO EGINKIZUNA

Icharoten dot Aita Jainkoagan.

Icharoten dot Seme Jainkoagan.

Icharoten dot Espiritu Santu Jainkoagan.

Icharoten dot, neure Jainkoa, emongo deustazula, Jesukristo neure Jaun eta Salbaggillearen duintasunen balioz, zeu egitada onakaz serbietan zaituezanai agindu deutezun betiko bizitzea, arturik erabagia zeure Jainkozko graziaren laguntasunagaz egitada onak egiteko.

MAITETASUNEZKO EGINKIZUNA

Maite dot Aita Jainkoa.

Maite dot Seme Jainkoa.

Maite dot Espiritu Santu Jainkoa.

Maite dot Jesukristo neure Jaun ta Salbatzallea.

Maite zaitut, neure Jainkoa, gauza guztien ganean, guztiz on eta maitegarria zarealako.

Maite dot Maria guztiz Santea, Jainkoaren Ama ta gure Jabea; eta Jainkoari deusadan maitetasanagaitik, maite dot neure lagun urkoa neure burua legez.



Errosario Santua

Kurtze Santearen... Aitearen... NEURE JESUKRISTO JAUNA...

Batek.—*Domine, labia mea aperies.* (Idigi, Jauna, nire ezpanak.)

Besteak.—*Et os meum annuntiabit laudem tuam.* (Eta nire aboak iragarriko dau zeure alabantzea.)

Gloria Patri...—Sicut erat...

Maria doezkoa, Maria errukiorra, lagundu ta gorde gaizuz orain eta beti geure arerioetatik. Amen.

ASTELEN ETA EGUENETAN

ESKUTAPEN EDO MISTERIO POZEZKOAK

Lenengo eskutapena.—Jainkoaren Semearen Aragitualdi edo Encarnaciñoa.

Aita gure bat, amar ave-mari ta Gloria Patri... bat, eta gero «Maria doezkoa etc.» esango dira eskutapen edo misterio bakochean.

Bigarren eskutapena.—Birjiñea bere lengu-
siñ Isabel ikusten ioan zanekoa.

Irugarren eskutapena.—Jainkoaren Semea-
ren laiotzea.

Laugarren eskutapena.—Maria gure Erre-
giñearen garbituera edo purificaciñoa.

Bostgarren eskutapena.—Jesus, amabi urte-
koa zala, Eleisan galdu ta gero aurkitu
ebenekoa.

Amaitu daiteke Letaniagaz.

MARTITZEN ETA BARIKUETAN

ESKUTAPEN EDO MISTERIO ZAMIÑEZKOAK

Lenengo eskutapena.—Jetsemaniko ortuko
arren edo oraciñoa.

Bigarren eskutapena.—Jesukristori emon
eutsezan azoteak.

Irugarren eskutapena.—Arantzazko koroia
Jesukristori buruan ezarri eutsenekoa.

Laugarren eskutapena.—Kurutzeta lepoan
Jesukristori ipiñi eutsenekoa.

Bostgarren eskutapena.—Jesukristo kuru-
tzean iosi ebenekoa.

Amaitu daiteke Letaniagaz.

EGUASTEN, SAPATU TA DOMEKETAN

ESKUTAPEN EDO MISTERIO GLORIAZKOAK

Lenengo eskutapena.—Jesukristo geure Jau-
naren biztuerea.

Bigarren eskutapena.—Jesukristoren zeruetarako igoerea.

Irugarren eskutapena.—Espiritu Santuaren etorrerea.

Laugarren eskutapena.—Maria Birjiñeak zeruetara igo ebanekoa.

Bostgarren eskutapena.—Maria Birjiñea zeruan koroiaz apaindu ebanekoa.

Amaitu daiteke Letaniagaz.

Ama Birjiñearen Letania

Kyrie eleyson.

Christe eleyson.

Kyrie eleyson.

Christe audi nos.

Christe exaudi nos.

Pater de Coelis Deus, *Miserere nobis.*

Fili Redemptor mundi Deus, *Miserere nobis,*

Spiritus Sancte Deus, *Miserere nobis.*

Sancta Trinitas unus Deus. *Miserere nobis.*

SANCTA MARIA, *Ora pro nobis.*

Sancta Dei Genitrix, *Ora pro nobis.*

Sancta Virgo Virginum
Mater Christi
Mater Divinæ Gratiæ
Mater Purissima
Mater Castissima
Mater Inviolata
Mater Intemerata
Mater Inmaculata
Mater Amabilis
Mater Admirabilis
Mater boni Consilii
Mater Creatoris
Mater Salvatoris
Virgo Prudentissima
Virgo Veneranda
Virgo Prædicanda
Virgo Potens
Virgo Clemens
Virgo Fidelis
Speculum Justitiæ
Sedes Sapientiæ
Causa nostre Letitiæ.
Vas Spirituale
Vas Honorabile
Vas insigne Devotionis
Rosa Mystica
Turris Davidica
Turris Eburnea
Domus Aurea
Fæderis Arca
Janua Cœli

Ora pro nobis


Stella Matutina
Salus Infirmorum
Refugium peccatorum
Consolatrix afflictorum
Auxilium Christianorum
Regina Angelorum
Regina Patriarcharum
Regina Prophetarum
Regina Apostolorum
Regina Martyrum
Regina Confessorum
Regina Virginum
Regina Sanctorum omnium
Regina sine labe originali concepta
Regina Sacratissimi Rosarii

Ora pro nobis

- v. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
r. Parce nobis, Domine.
- v. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
r. Exaudi nos, Domine.
- v. Agnus Dei, qui tollis peccata mundi.
r. Miserere nobis.
- v. Ora pro nobis, Sancta Dei genitrix.
r. Ut digni efficiamur promissionibus
Christi.

OREMUS

Gratiam tuam quæsumus, Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante Christi Filii tui Incarnationem cognovimus, per passionem Ejus et crucem, ad resurrectionis gloriam perducamur. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.



Meza erazoteko modua

Meza erazoten ikasi gura badozu, irakurlea (ta mutilla bazara, ondo dozu ikastea), ona emen meza erazoteko modua.

Berton ikasiko dozu meza errezau haten esan eta egin bear dozun guztia.

Mezea baño lenago

Ichura onean iantzita, ta arpegi ta eskuak garbirik dozuzala, ioango zara eleisara. Belaunikaturik altaraurrean erregu laburcho batzuk egin eta gero, ioan zaite sakristiara, ta eroaizuz bertatik altarara, eroan bear

direan gauza guztiak, lenlk eroanda ezpadagoz.

Abadeak lepotik *manteoa* kendu deinean, artuko deutzazu eskuan eta ipiñiko dozu onetarako izentauta dagon lekuan polito polito.

Abadeak eskuak garbitu ta legortu daizanean, eroango deutzazu ostia-dun ucha edo cajea, artu daian bertatik berak naiien dabena.

Iantzi dontsuak iantziten asi deite-nean, artuko dozu *cinguloa* derichon kordel bikocha esku bietan, borladun alderdia eskumatara dala. Ta emongo deutzazu abadeari, atzetik, cinguloaren erdian dagoan ereztun edo *anilloa* eskumako eskuan, eta borla-bako alderdia eskerrekoan ichiten deutzazuzala.

Gero ipiñiko deutzazu atzeko alderditik *albea* bardin bardiñean, *sotanea* eztalduteko bestean, eta magalak lurra baño atz bat inguru gorago ichiten direala.

Emongo deutzazu *manipuloa* edo

eskutur-ganekoa, mun emon deion, eta ipiñiko deutzazu eskutur eta ukondoaren bitartean, eta ereztunchua gora eroanda, ichiko deutzazu ondo lotuta.

Esku biekaz artuta, emongo deutzazu *estolea*, oneri be mun egin deion; eta abadeak ipinten dabenean, begituizu ondo estolearen kurutzea idunaren erdian geratuten baiako ala ez.

Emongo deutzazu gero *kasullea*, ta, au iantziten dagoan bitartean, ekarriko deutzazu *bonetea*.

Abadearen eskerretara zagozala, abadeagaz batera makurtuko dozu burua kurutzearen aurrean; eta au egin ostean, abadearen aurretik, bera baño pausu bi edo iru aurrerago, urtengo dozu altararako.

Abadeak gura daben altarara ioateko, altara nagusiaren aurretik ioan bear bada, onen aurrean belaun bat makurtuko dozu, gure Jauna agirian ezpadago be. Geure Jauna agirian

edo comunioa emoten dagozan altararen baten aurretik ioan bear bada, belaun biak makurtu ta belaunikotuko zara.

Zure abadeak mezea emongo dabenean altara-aurrean geratuko zara, Epistolako alderdian, alderdi onen aurrez aur, zutunik eta apur bat al-denduta, zure aurretik abadea igaroteko beste leku ichirik.

Abadearen eskoatara ioan eta artuko deutzazu bonetea, eta beragaz batera makurtuko dozu belauna edo burua, berak makurtuten dabena.

Bonetea bere lekura eroan eta gero (1) makurtuko dozu belaun bat altararen erdiaren aurretik igaro zaitenezenean (*altara nagusia bada*, bere

(1) Argiak lenik issiotuta ezpadagoz, orain issiotuko dozus. Kandela asko issiotu bear bada, issiotuko dozuz lenengo eskumakoak eta gero eskerrekoak, kurutzearen ondokoetatik asita.

erdiaren aurretik igaroten zaren bakochean egin bear dozu bear au), (I) eta Ebanjelioko alderdian altareko oletik apur bat aldenduta, abadearen eskerretara belaunikotuko zara.

MEZAN

Abadeak «Aitearen» egiten dau mezeari asierea emotean, eta zeuk be bardiñ egingo dozu abadeagaz batera, eskerreko eskua garri-ganean ipinten dozula.

Geldirik egon bear dozunean, eskuetan ezer ezpadaukazu, esku biok eukizuz bularraren aurrean, esku bateko atzak beste eskuko atzakaz polito batuta, ta esku bion ganeak albo bietarara adi ta atzak altarara-begira ipiñita.

(I) Geure Jauna agirian ez eztarian eztaukan altararen erdiaren aurretik igaro zaitezanean, burua makurtutea dozu naiko. Eztago zetan belaunik makurtu.

Abadeak diño: IN NOMINE PATRIS
ET FILII ET SPIRITUS SÁNCTI. AMEN.
INTROIBO AD ALTARE DEI.

Zuk erantzungo dozu: *Ad Deum qui
letificat (*) iuventutem meam.* (Ona
emen berba onek euskeraz esan
gura dabena: Nire gaztetasuna
poztuten daben Jainkoagana).

Ab.^k IUDICA ME, DEUS, ET DISCERNE
CAUSAM MEAM DE GENTE NON SANC-
TA, AB HOMINE INIQUO ET DOLOSO
ERUE ME.

Zuk. *Quia tu es Deus fortitudo
mea, ¿quare me repulisti et quare
tristis incedo dum afligit me ini-
micus?* (Bada zu zara, Jauna, nire
sendotasuna, ¿zegaitik baztertu
nozu, ta zegaitik nabil triste are-
rioak zaminduten naben bitartean?)

Ab.^k EMITTE LUCEM TUAM ET VERI-
TATEM TUAM, IPSA ME DEDUXERUNT

* Latiñeko berbak, zeuk esan bear do-
zuzanak, zeuk obeto irakurteko moduan
ipinten dodaz.

ET ADDUXERUNT IN MONTEM SANCTUM TUUM ET IN TABERNACULA TUA.

Zuk. *Et introibo ad altare Dei, ad Deum qui letificat iuventutem meam.* (Eta ioango naz Jainkoaren altarara, nire gaztetasuna poztuten daben Jainkoagana).

Ab.^k CONFITEBOR TIBI IN CITHARA DEUS, DEUS MEUS, ¿QUARE TRISTIS ES, ANIMA MEA, ET QUARE CONTURBAS ME?

Zuk. *Espera in Deo, quoniam adhuc confitebor illi, salutare vultus mei et Deus meus.* (Icharon egizu Jainkoagan, bada oindiño autortuko dot bera, nire arpegia-
ren osasungarria ta nire Jainkoa).

Ab.^k GLORIA PATRI, ET FILIO, ET SPIRITUI SANCTO.

Zuk. (Burua makurtuta). *Sicut erat in principio et nunc, et semper, et in secula seculorum. Amen.* (Asi-keran izan zan legez orain be; ta beti ta gizaldi guzti guztietan. Amen).

Ab.^k INTROIBO AD ALTARE DEI.

Zuk. *Ad Deum qui letificat iuventutem meam.*

Ab.^k ADIOTURIUM NOSTRUM IN NOMINE DOMINI.

Zuk. «Aitearen» egin-ostean, esango dozu: *Qui fecit celum et terram.* (Zeiñek egin ebazan zerua ta lurra).

Ab.^k CONFITEOR DEO OMNIPOTENTI... (abadeak esaten dau emen «Ni pekatari au» latinez)... ORARE PRO ME AD DOMINUM DEUM NOSTRUM.

Zuk. Abadeaganuntz burua apur bat makurtu ta esango dozu: *Misereatur tui Omnipotens Deus, et dimisis peccatis tuis perducatur te ad vitam eternam.* (Errukitu beite zugaz Jainko guztiz Altsua, ta zeure pekatuak parkatu ta gero, eroan zaizala betiko bizitzara).

Ab.^k AMEN.

Zuk. Altararuntz burua makur makur ipiñita esango dozu: *Confiteor Deo omnipotenti, Beate Marie*

semper Virjini, Beato Micaeli Arcanjelo, Beato Ioanni Baptiste, Sanctis Apostolis Petro et Paulo, omnibus Sanctis, et tibi Pater, quia peccavi nimis cojitacione, verbo et opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa (1). Ideo precor Beatam Mariam semper Virjinem, Beatum Micaelem Arcanjelum, Beatum Ioannem Baptistam, Sanctos Apostolos Petrum et Paulum, omnes Sanctos, et te, pater, orare pro me ad Dominum Deum nostrum. (Au da «Ni pekartari au» latinez).

*Tibi, pater eta te, pater diñozunean, abadeaganuntz eroango dozu apur bat zeure burua, makurtasuna galdu barik. Eta mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa diñozun bitartean, eskumako eskua-
ren atzamar-puntakaz ioko dozu*

(1) *Neure erruz, neure erruz, neure erru-
andiz.*

iru bidar eta biguncho zeure bu-
larrara, esku eskerra garri-ganean
dozula, artean legez altarara begi-
ra iarraiturik eta makurtasuna gal-
du barik.

Ab.^k MISEREATUR VESTRI OMNIPO-
TENS DEUS, ET DIMISSIS PECCATIS
VESTRIS PERDUCAT VOS AD VITAM
ÆTERNAM.

Zuk. *Amen.* (Olan izan beite).

Ab.^k INDULGENTIAM, ABSOLUTIONEM
ET REMISSIONEM PECCATORUM NOS-
TRORUM TRIBUAT NOBIS OMNIPOTENS
ET MISERICORS DOMINUS.

Zuk. *Amen.*

Ab.^k DEUS TU CONVERSUS VIVIFICA-
BIS NOS.

Zuk. *Et plebs tua letabitur in te.*
(Ta zure erria poztuko da zugaran).

Ab.^k OSTENDE NOBIS DOMINE MI-
SERECORDIAM TUAM.

Zuk. *Et salutare tuum da nobis.*
(Ta emon egiguzu zeure osasun-
garria).

Ab.^k DOMINE EXAUDI ORATIONEM
MEAM.

Zuk. *Et clamor meus ad te veniat.*
(Eta nire oiu edo deedarra beioa
zugana).

Ab.^k DOMINUS VOBISCUM.

Zuk. *Et cum spiritu tuo.* (Eta
zeure gogo edo espirituagaz.)

Abadeak OREMUS esan deinean, iagiko zara, eta igongo dozu abadeagaz altarara, abadearen *albea* aurreko aldetik apur bat goratuten dozula. Au egin eta gero, altareak malle bat baño geiago badauko, be-launikotuko zara beerengoan, eta bat baño ezpadauko, berton.

Liburua irakurten asiten danean, abadeak «Aitearen» egingo dau, ta zuk be egizu. *Gloria Patri*-ra eldutean abadeak burua makurtuten dau apur bat, eta baita zuk be olanche egin.

Gero abadeak, erdira etorrita,
diño:

KYRIE ELEISON.

Zuk. *Kyrie eleyson.*

Ab.^k KYRIE ELEISON.

Zuk. *Criste eleyson.*

Ab.^k CRISTE ELEYSON.

Zuk. *Criste eleyson.*

Ab.^k KYRIE ELEYSON.

Zuk. *Kyrie eleyson.*

Ab.^k KYRIE ELEISON.

DOMINUS VOBISCUM abadeak diñoanean, erantzungo dozu: *Et cum spiritu tuo.*

Eta arren edo oraziñoen azkene-tan *secula seculorum* diñoanean, AMEN erantzungo dozu. Abadeak PER OMNIA SEacula SECULORUM diñoan guztian, zuk *Amen* esan.

Flectamus genua esango baleu, LEVATE erantzun bearko leuke meza-erazoleak.

Epistolearen ostean (eta profecia-

rik balego, onen ostean be bai), (1) *Deo gracias* erantzun bear da.

Beingoan (edo *Tracto*-a luzea bada, edo *sekuentzi*-arik badago, onek amaitutean), ioango zara Epistolako alderdira. Ta abadeak liburua ichi daienean, artuko dozu esku bietan *atrilla* liburu ta guzti, ta altareari atzerik emon barik, eroango dozu Ebanjelioko alderdira (aginduta dagoana altararen erdiaren aurrean eginda, ta au kontuan euki beti), ta ichiko dozu *atrilla* alde apur bategaz, liburuko orriak Epistola-alderdira begira egoteko moduan.

Altarako ol-malletik iachita, zutunik erantzungo deutzazu abadeari.

SEKUENCIA SANCTI EVANGELII SECUNDUM IOANNEM (edo MATTEUM edo beste izen bategaz) diñoanean, *Gloria tibi, Domine* erantzun, beragaz

(1) Lau denporetako edo Cuarta-Temporetako Sapatuko bostgarrenean, eta Barikuguren eta Sapatugurenekoetan ez.

batean *kurutze santearen* egiñik. Eta *Jesus* aitatu deinean, burua apur bat makurtu ta gero, biurtuko zara Epistolako alderdira, ta zutunik iarraituko dozu emen be.

Evanjelioa amaitu deinean, *Laus tibi, Criste* erantzun; eta *Kredo*a badago, belaunikotuko zara, ta Abadeak ET INCARNATUS-ean belauna makurtuten dabenean, zuk burua makurtuko dozu askocho.

Abadearen DOMINUS VOBISCUM-ari *Et cum spiritu tuo* erantzun eta beingoan, ioango zara altara-ondoko maira, ekarriko dozuz bertatik urontzicho ta ardao-ontzicho, au da, binajerak, euron plater ta guzti; ta ipiñiko dozu platera, ontzichuak barruan direala, altarako esku-zapi edo *lavaboa* altara-ertzean zabaldu ta gero, esku-zapi beronen ganean.

Kalizaren eztaigarria abadearen eskuetatik artutean, toleztu edo do-

bleuko dozu polito polito, ipiñiko dozu Epistola-alderdiko *sacrearen* ondoan. Altarea chikerra bada. altara-ondoko maira eroan.

Artuko dozu gero ardo-ontzichoa bechotik eskumako eskuagaz, ta ontzicho berari mun eginda, emongo deutzazu abadeari, errez artuteko moduan, oratu-lekua bere aldera dala. Berak atzera biurtu deizunean, artuko deutzazu esku eskerragaz, eta ontzichoari barrero mun egin eta gero, beingoan edo aldi berean erakutsiko deutzazu ur-ontzichoa bedeinkatu daian ura; ta urreratuko deutzazu, berak kollarachuaz bertatik ura errez artu daian.—Eroaizu gero altara ondoko maira ardo-ontzichoa, ta altarara barrero etorri ta artuizu esku eskerrean platera ta eskoian ur-ontzichoa (esku-zapichoa altara-ganean abadeak errez koisuteko moduan ipiñita): abadea eskuak garbitutera ioatzunean, makurtuko dozu beraganuntz burua, ta botako

deutsazu ura atzamar-puntetara, ura batera-bestera bota barik, beti alderdi batera botaten dozula.

Burua beste bein makurtu ta gero, botako dozu platerera iausi dan ura ekandua dan ontzira, ta eroango dozu platera, ur-ontzia barruan dabela, altara-ondoko maira.

Chiliña artu ta belaunikotuko zara ol-mallean, Epistolako alderdian.— Abadeak ORATE FRATRES esan da gero *Patrem omnipotentem* esan deinean (au da, altarara begira barrero iarri deitenean), erantzungo dozu:

Suscipiat Dominus sacrificium de manibus tuis ad laudem et gloriam nominis sui, ad utilitatem quoque nostram, tociusque Ecclesie sue sancte. (Esan gura da berba onekaz ausse: Artu bei Jaunak zure eskuetatik il-eskeintasun edo sacrificioa bere ize-naren goratasun eta gloriarako, baita gure mezedegarrizat eta bere Eleisa santa guztiaren onerako be).

«Prefacioan» esango dau.

Ab.^k *Per omnia secula seculorum.*

Zuk. *Amen.*

Ab.^k *Dominus vobiscum.*

Zuk. *Et cum spiritu tuo.*

Ab.^k *Sursum corda.* (Gora biotzak).

Zuk. *Habemus ad Dominum* (Jau-
narentzat doguz).

Ab.^k *Gratias agamus Domino Deo
nostro.* (Emon daioguzan eskerrak
geure Jaun Jainkoari).

Zuk. *Dignum et iustum est.* (Gauza
duiña ta zuzena da).

«Sanctus»-era eldutean, abadeak
Sanctus diñoan bakochean chiliña
ioko dozu.

Ichizu gero chiliña lurrean. eta
«Benedictus»-ean abadeagaz batera,
Aitearen egingo dozu.

Abadeak lenengo «gomuta» edo
«Mementoa» egin deinean, issiotuko
dozu kandeleru chikerreko kandelea;
ta issiotuta gero, ipiñiko dozu kande-
leru chiker ori altara-ganean, kaliza-

ren eskumako alderdian, iru arra inguru alborago.

Au egin eta beingoan, belaunikotuko zara abadeagandik ur, bere eskumako alderdian.

Consegraciño-ko berbak, hostia eskuetan daukala, esaten dagoanean, elduko deutzazu, burua makurtu ta gero, bere kasulleari atzeko magal batetik eskerreko eskuagaz, eta esku eskoian artuko dozu chiliña, ta ioko dozu berau, abadeak belauna makurtu deinean; barrero ioko dozu chiliña abadeak hostia goratu deinean; abadeak barrero belauna makurtu deinean, ichiko dozu casullearen magala ta ioko dozu chiliña irugarren aldiz.

Beste onenbeste, egingo dozu gero, abadeak hostiaz egin dabena kalizagaz egiten dabenean.

Gero iagiko zara, ioango zara artean egon zarean lekura ta belaunikotuko zara bertan.

Aite gurea latinez esan deinean
abadeak diño: ET NE NOS INDUCAS IN
TENTATIONEM.

Zuk erantzuizu: *Sed libera nos a
malo.*

Apur bat geroago, hostia zatitu-
ta, esango dau:

PER OMNIA SECUA SECUA SECUA.

Zuk. *Amén.*

Ab.^k PAX DOMINI SIT SEMPER VO-
VISCUM.

Zuk. *Et cum spiritu tuo.*

«Agnus Dei» diñoan bitartean
(*Difuntuen* mezea ezpada), burua
apur bat makurtuta egongo zara, ta
Agnus Dei entzuten deusazun ba-
kochean ioko dozu esku eskoiaz
bularra.

DOMINE NON SUM DIGNUS diñoan
bakochean ioko dozu chiliña; ta co-
mulgetan dagoan bitartean, makurtu-
ta egon zaitez.

Pateneagaz hostiaren ondarrak ba-

tuten abadea asi deitenean, iagi ta eroango dozu chiliña bere lekura, artuko dozuz ardo-ontzichoa ta ur-ontzichoa euren platerean, eta belaun eskoia makurtu ta gero, ipiñiko dozus altara-ganean.

Kalizeko ardao *consagraua*, Kristoren odola, abadeak edan deinean, artuko dozu ardo-ontzichoa, ta botako deutzazu abadeari kalizera berak nai daben beste ardao. Au edan deinean, botako deutzazu beste ainbeste ardao, ta ur-ontzichotik, beingoan, beste ainbeste ur. Ardoa (ta ura be bardin), bota bear iako, ontzichuaz bere atzamarrai ukutu barik eta ontzichua geiegi goratu barik.

Amatauko dozu kandeleru chikereko kandlea (len issiotutea aitzu ezpaiatzu), artuko dozu kalizearen ganeko eztaigarria arako chirrinkairudiko gauzea ganean ipiñita; ta, kandeleru chikerra altara-ondoko maian ichi ta gero, eroango dozus Ebanjelioko alderdira.

Artuko dozu atrilla, liburu ta guzti, ta Ebanjelioko alderditik Epistolakora eroango dozu.

Biurtu zaite Ebanjelioko alderdira, ta emoiozu abadeari eskura kollarachua, gero chirrinke-antzeko gauzea, ta azkenez kalizaren ganeko ez-talgarria, bere iruntzia zeure adi dala.

Belaunikotuko zara, au eginda-koan, Ebanjelioko alderdian bertan; eta anche egongo zara mezea amaitu arte.

Dominus vobiscum diñoanean, erantzungo deutzazu beti legez, eta baita *Per omnia secula seculorum* diñoanean be.

Altara-erdian esaten daben azkenengo *Dominus vobiscum*-aren ostean, iru gauzotarik bat esaten dabe abadeak: edo *ITE MISSA EST* edo *BENEDICAMUS DOMINO* edo *REQUIESCANT IN PACE*. (Azkenengo au, iantzi baltzagaz dagoanean).

Ite missa est badiño, erantzuzi
DEO GRACIAS.

Benedicamus Domino badiño be
bardin (I).

Requiescant in pace badiño, eran-
tzuzi AMEN. ITE MISSA EST esan
dabenean, abadeak liburua zabalik
ichi badau, *Deo gracias* erantzun eta
beingoan (baña karraderarik barik),
ioango zara liburua koissuten; artu
ta eroango dozu, betiko lekuan be-
launa makurtu ta gero, Evanjelioko
alderdira. Issita ichi badau, bakean
ichi liburuari.

Abadeak bedeinkaziñoa emoten
daben bitartean, burua makurtuta ta
belauniko egongo zara, gero iagi ta
«aitearen» eginda, erantzungo deu-
tsazu *Dominus vobiscum* berak esa-
tean; eta urrengo diñoanari *Gloria*
tibi, Domine erantzunda, zeñatuko

(I) *Ite missa est* edo *Benedicamus Do-*
mino-ren ostean *Aleluia* badiño, zeuk DEO
GRACIAS-en ostean *Aleluia* esan.

zara, Epistolako alderdira biurtuta eta zutik.

Makurtuko dozu belauna ET VERBUM CARO FACTUM EST diñoanean, eta azkenengo Ebanjelio ori amaitutean, erantzungo deutzazu DEO GRACIAS.

Ekarriko dozu gero erreguak daukazan laurka edo *cuadrúa*, ta, bera eskuan dozula, belaunikotuko zara abadearen eskumako alderdian.

ORA PRO NOBIS, SANCTA DEI GENITRIX diñoanean, emongo deutzazu cuadru ori *Ut digni efficiamur promissionibus Cristi* erantzunda.

Laurka edo cuadruko erreguok errezeu deizanean, artu ta eroango dozu laurkea lengo lekura, ta ekarriko dozu bonetea.

Mosua eskuan emonda, emongo deutzazu bonetea abadeari, ta makurturik beragaz batean belauna, ioango zara bere aurretik sakristiara.

Sakristiara eldutean, makurtuko dozu burua, askocho birritan; le-

nengo, kurutzeari begira, ta bigarren;
abadeari begira; lenengoan baño gi-
chichuago bigarreanean. Gero altara-
ko argiak amatau, ta ekarriko dozus
sakristiara atrilla, ardo ta uraren
ontzichoak eta bertara ekarri bear
direan gauza enparauak.

Eleisako zeure zer-eginchu danak
egin eta gero, etzara ioango echera,
eleis-barruan erreguchu batzuk egin
barik.

A. M. D. G.

Irakurla maiteari

Al izan dodanik euskerarik garbienagaz-
iantzita, ona emen eskuetan ipiñi deusut
idaztiño edo liburucho eliztar bat.

Kristauaren DOTRIÑEA dericho.

Nire gura-izateak al-izatea lagun izan
baleu, pozarren bateatuko eban izen eus-
keratsuagoren bategaz. Baiña...

Baita pozik ipiñiko nituzan bere gorpu-
tzeko orrietan *deun*, *neskutz* eta onetariko
berba batzuk, «santu» eta «birjiña» lango
berbai ostaturik emon barik.

Baiña... Baiña diñot emen be, irakurlea.
Esan gura dot, ezin egin izan dodala.

¿Zegaitik?

¡Ah, irakurla maitea!

Bear bada, zeu, orain irakurten zagozan
maite ori, euskerazaletasunaren zaletazu-
nez, dana dala, euskerea garbi garbirik iku-
si-gurakoa izango zara. Ta atsegin dot au-
olan izatea.

Baiña, irakurla maitea, eztira danak uste

batekoak, eta batzuk eztabe nai orrenbesteko garbitasunik euskerean, argitasunaren kaltean dala-ta.

Dana dala, zarean ori, etzara deskeila izango nire uste onagaz.

Bada argitasuna ta garbitasuna alkarren lagun direala, euskerazko idaztiño garbi ta argi bat, gaur-artekoetarik garbiena egiteko alegin zintzo zintzoak egin dodaz. Ziniztu zeio Euskerea Ama lez maite maite daben

Egilleari.









Jainkoaren omenik andienerako



A
35